KAUSAZKO PERPAUSAK (errepasoa)

Aditz jokatuekin:

Lotu esaldiak. Erabili [-(E)LAKO] egitura.

- Auto batek harrapatu du / Negarrez hasi da.
- Buruko mina zeukan / Etxean geratu zen.
- Gure semea eritegian dago / parkean erori da.
- Autobusez joatea erabaki nuen / euria etengabe ari zuen.
- Gauzak gaizki atera zaikigu. Haserretu gara.

Lotu esaldiak. Erabili [BAIT-] egitura.

- Jai eguna da / Lantegiak itxita daude.
- Ez zuen biologiako azterketa gainditu / Ez zuen nahikoa ikasi.
- Haurrak negar asko egin du / lagun batek jo du.
- Etxera joan behar dut. Nekatuegi nago.
- Denda horren jabea nire laguna da / erosketak egiten dizkiot.

Lotu esaldiak. Erabili [-(E)NEZ GERO] egitura.

- Azterketa gainditu du / Asko ikasi zuen.
- Ez dizkizute betaurrekoak jarriko / Ondo ikusten duzu.
- Gabonetan loteria jokatzen dute / diru asko irabazi nahi dute.
- Barrezka ari da / txiste bat kontatu diote.
- Erori zara / Korrika joan zara.

Lotu esaldiak. Erabili [-(E)LA ETA] egitura.

- Kontzertua bertan behera utzi zuten / Abeslaria gaixorik zegoen.
- Gurasoek zigortu ninduten / Gezurra esan nuen.
- Dentistarengana joan behar duzu / haginetako mina duzu.
- Bilbora bizitzera joan ziren / lanpostua finkoa aurkitu zuten.
- Euritakoa daramat / Euria ari du.

Lotu esaldiak. Erabili [-ETA] egitura.

- Lurralde eguzkitsua da. / Tenerife irla turistikoa da.
- Programa aspergarria da. / Telebista itzali dut.
- Dena gainditu du. / Uda ona pasatuko du.
- Semea oso pozik jarri da / bizikleta berria erosi diot.
- Telebista bat lapurtzen saiatu zen. Komisaldegira eraman zuten.

Aditz jokatugabeekin:

Lotu esaldiak. Erabili [-T(Z)EAGATIK] egitura.

- Mikel eta Ane ez ziren klasera etorri / Gaixorik zeuden.
- Istripu asko egoten dira. / Errepideen egoera txarra da.
- Asteburuan zigortuta egon ginen / Gaizki portatu ginen.
- Tabernan sartu naiz / egarri asko daukat.
- Ariketa guztiak amaitu dituzu. Jolastokira joan zaitezke.

Lotu esaldiak. Erabili [-T(Z)EARREN] egitura.

- Nire adiskideak beldur ziren / gaua oso iluna zen.
- Azterketa guztiak gainditu ditut / Irakasleek zoriondu naute.
- Amaia lokartu egin da / Pelikula oso aspergarria da.
- Enekok errieta egin dit / bere alkandora zikindu dut.
- Egia esan dio. / Haserre jarri da eta alde egin du.